

Balio Proposamena

Ideia: Gure helburua, matematikan laguntzeko programa bat sortzea da; horretarako, aplikazio bat sortu nahi dugu non jorratzen ari zaren gaiari buruzko ariketak egin ahalko dituzun. Programak berak esango dizu non egin duzun akatsa eta zeintzuk diren ariketa hori zuzen egiteko egin beharreko urratsak. Azalpenak ere egongo dira matematikari buruzko gai guztiei buruz; horrela, gai bat ez ulertuz gero horri buruzko azalpenak eskuragarri egongo dira. Gainera, ikaskuntza publikoan ikastetxe batek gure aplikazioa erosten badu, irakasleak beren ikasleen beharrak ikusi ahal izango ditu.



Nola Sortu zen Ideia? :Covid-19aren birusaren ondorioz, hainbat klase eman genituen etxetik (online). Klaseak txarrak zirenez eta ikasle batzuk atzean geratzen zirenez, ideia hau bururatu zitzaigun. Guk eskaintzen dugun zerbitzuari esker edozein ikasle erabili ahal izango du gure aplikazioa zalantzak argitzeko eta klasearen erritmoa jarraitzeko. Gainera, beste konfinamentu bat egonez gero guk uste gure aplikazioa beharrezkoagoa izango dela eta salmentak igoko direla. Matematika zaila da laguntza barik ikastea eta guk laguntza hori emango dugu.



Atal Honetan gure aplikazioaren balioak ere zehaztuko ditugu: Balio kuantitatiboaren aldetik 10 euro kobratuko ditugu gure aplikazioa bezero pribatuei saltzeagatik, modu horretan lortuko ditugu gure diru sarrerak. Era publikoan (ikastetxeei) zuzenean saltzean deskontu bat izango du gure aplikazioa erosteak diru publikoarekin finantzatuko dugulako. Balio kualitatiboaren aldetik, eskaini nahi duguna zerbitzu bat da; kasu honetan, irakasle zerbitzua. Arazoak dituzten ikasleek klasearen erritmoa jarraitu ahal izango dute. Gure helburu nagusia ikasleei hezkuntzan laguntzea izango da.

Zergatik Bereiztuko da Lehiakideengatik?: Gure lana erabiltzeko erraza izango da (ikasle batek erabili beharko du), ikasleei lana erraztuko die (ikasketetan laguntzeko), berritzailea izango da (matematika klaseak etxetik), pertsonala izango da (bakoitzaren beharretara zuzenduta) eta prezio ona izango du. Gainera, zure ikastetxeak erosten badu, zure hileroko kuotaren barnean sartuko da aplikazioa.

Gure enpresak balioa sortzen duten eta lehiakideengaitik ezberdintzen duten hainbat elementu ditu. Zerbitzu berritzailea da gure ingurunean; nahiz eta mota honetako enpresak existitu munduan zehar, durangaldean lehenak izango gara honetan. Pandemia dela eta jende askok leku publikoetara joateko beldurra garatu du eta ikasketak etxetik egiteko aukera izatea bezeroentzako aukera positibo bat bezela ikusten dugu.

Lana errazten diegu ikasleei; izan ere, ikasketa prozesuan dituzten zailtasunak aurrera eramaten laguntzen diegu, modu dinamiko eta errez batean. Honekin batera, pertsonalizazioa ere garatzen dugu, ikasle bakoitzak bere beharretara egokitutako ariketak landuko dituelako.

Prezio aldetik oso konpetenteak gara, urtean 10 euro ordainduko ditu bezero pribatuak. Ikastetxe publiko batek erosiz gero, gure aplikazioaren prezioa are hobeagoa izango da eta irakasleak ikasleen beharrak ikusi ahal izango ditu. Klase partikular presentzial batzuekin alderatuz gure zerbitzua askoz merkeagoa da. Klase presentzialen prezioa 10 euro orduko izan ohi delako.

